

[Cast/Eusk] Ikuspegiak (I) / Perspectivas (I)

AURRERANTZ :: 20/02/2019

El imperialismo franco-español está nervioso y asustado.....

Castellano

Para la elaboración de una estrategia revolucionaria que ayude a la recuperación del independentismo socialista en el contexto actual, primero es necesario llegar a un mínimo acuerdo sobre la forma que adquieren las contradicciones capitalistas esenciales y nuevas en Euskal Herria. Este es el objetivo de la primera entrega. Despues es necesario descubrir las transformaciones habidas en las clases en lucha, en el proletariado y en la burguesía en su sentido básico, y en el pueblo trabajador en su sentido general. Este es el objetivo de la segunda entrega. Por último, en la tercera se propondrán unos puntos a debate. Se intentará que cada entrega no supere las cuatro páginas.

Primera

El imperialismo franco-español está nervioso y asustado. Por un lado, los nervios cunden en el régimen de Macrón por su fracaso económico, que prometía un crecimiento del 2% en 2018 y el 1,9% en 2019; pero la debilidad económica general e interna en el primer semestre le ha obligado a revisar sus previsiones al 1,7% para cada uno de los dos años, incluso el Banco de Francia lo ha rebajado el 1,6% para 2018, aumento que parece mucho si lo comparamos con el 1,1% de 2016, pero que no es nada comparado con el 6,9% de China, o incluso del 1,5% de Rusia que está sufriendo un fuerte bloqueo económico occidental pero posee recursos ingentes si los comparamos con los del Estado francés.

El parón económico hace que el déficit fiscal se mantenga en el 2,6% del PIB como en 2017, cuando se esperaba rebajarlo al 2,3%, algo ya imposible. Aun así, según el FMI, el capitalismo francés conserva el puesto séptimo en la jerarquía mundial entre 2017 y 2022, pero la tendencia a medio plazo es que vaya descendiendo porque otros países empujan hacia arriba con creciente fuerza. Desde 2008 la perdida media de salario por familia obrera es de 440 euros, lo que unido a las duras restricciones sociales ha hecho estallar la ira popular, una de cuyas expresiones son los chalecos amarillos, pero no la única. La represión incrementada y la humillante limosna de 100 euros detiene la ira popular. 89.000 policías están en primera línea de defensa del capitalismo, pero detrás, en segunda línea, están unidades militares... habiendo detenido hasta la fecha a unas 5.339 personas en menos de dos meses de movilizaciones.

Por otro lado, el capital español asiste asustado al desplome del Ibex 35 hasta niveles de 2010 lo que indica, entre otras cosas, la desconfianza de la alta burguesía en el futuro. En efecto, siempre según el FMI el capitalismo español bajó del octavo puesto en 2009, al catorceavo en 2017 y bajará al quinceavo en 2021, pero otra estimación realizada por la revista Expansión rebaja al Estado español al dieciseisavo en 2021. Todos los indicativos muestran el debilitamiento del PIB español, que caerá más en 2019. Además, la ralentización mundial afecta al turismo, dificulta la reducción del gigantesco déficit, reduce

las exportaciones y aumenta las importaciones, y siempre bajo el temor de que no suba el precio del crudo...

A estos problemas estructurales se le suma el más decisivo de todos, la baja productividad: el 78% de los puestos de trabajo creados desde 2013 tienen una productividad inferior al promedio y en 2016, el último año contrastado, la productividad por persona en el Estado español era de 67.000 mientras que la de la Eurozona era de 75.000. La productividad estatal creció un 0,5% en 2015 y un 0,6% en 2016, mientras la de la Eurozona un 1,7% y un 1,3% respectivamente. La productividad española ocupa el puesto vigésimo noveno de las 32 economías más potentes, y tiende a la baja por el ascenso de países no europeos. Este retroceso tiene causas históricas en la misma estructura elemental del Estado: el 42% de la población trabajadora no tiene educación superior, en la Eurozona es solo el 29,5%. Y la reducción del paro es debida fundamentalmente a la precarización de los nuevos contratos; peor aún, y más significativo, de los 3,6 millones de puestos de trabajo perdidos en la crisis, solo se han creado 2,5 millones, mientras que se han recuperado únicamente el 60% de las horas de trabajo en este mismo período.

Si el imperialismo franco-español está nervioso y asustado, todo el imperialismo está histérico porque sigue la tendencia a la baja de la tasa media mundial de beneficios; porque pese a todos los esfuerzos de sobreexplotación y saqueo multiplicados desde 2007 no logra abrir una nueva fase expansiva larga sino que todo indica que se ahondará la crisis en 2019; porque el capital ficticio y especulativo, la «banca en la sombra», etc., avanzan como un cáncer; porque los gastos mal llamados «externos», los que causa la devastación capitalista de la naturaleza, son imparables; porque se agotan las materias primas y energéticas, y se encarecen las alimentarias; porque los costos tecnocientíficos se multiplican exponencialmente; porque la deuda mundial crece de forma incontrolable bordeando el filo de la catástrofe; porque las luchas obreras y populares van en aumento; porque el empobrecimiento y la precarización galopante en el mundo, necesarias para sostener los beneficios, alimentan estas resistencias; porque el renacido neofascismo puede descontrolar la ficción democrático-parlamentaria todavía útil en algunos Estados; porque se tensionan las contradicciones interimperialistas acelerando la carrera armamentista hasta gastos inimaginables; porque, en suma, se está cumpliendo la ley general de la acumulación capitalista descubierta y expuesta por Marx en el libro I de El Capital...

Sobre la base objetiva del deterioro económico, energético y socioecológico mundial, podemos sintetizar esta compleja sinergia de contradicciones nunca alcanzada antes en cuatro puntos realmente inquietantes.

Uno, la crisis de dirección política del imperialismo; los decisivos gobiernos del capital -Estados Unidos, Gran Bretaña, Alemania, Estado francés, Italia, Japón, Bélgica... por no citar a los intermedios y débiles- se encuentran con serios problemas de dirección política estratégica. Dos, el avance a medio y largo plazo de la alianza euroasiática dirigida por China Popular y Rusia que, con dificultades, va minando los cimientos del imperialismo en cinco aspectos decisivos: una mayor unidad política; la productividad del trabajo y el control de las finanzas; la tecnociencia civil y militar; una aplastante superioridad de recursos energéticos y de población; y una política internacional menos salvaje que la imperialista, lo que le granjea nuevos aliados que se distancian de Occidente. Tres, el descontrol absoluto

del aumento de la deuda mundial en su totalidad y de cada una de sus áreas, y las guerras económicas que se extienden por el planeta. Y cuatro, el armamentismo imperialista dirigido por Estados Unidos y apoyado por el resto de grandes Estados, rearme reforzado por el militarismo social y cultural, el racismo y los neofascismos, etc., de cara a preparar las condiciones para agresiones crecientes a China Popular, Rusia, Irán, Venezuela, Cuba, Bolivia, Siria, Sudán, Corea, Yemen...

La fracción del capital mundial representada ahora por la Administración Trump busca imponer su dirección imperialista para disciplinar al resto del capital. Lo hace sobre todo mediante cuatro grandes métodos: reestablecer la supremacía global de Estados Unidos; reforzar su supremacía político-militar dirigiendo el caos mundial que ella misma provoca; supremacía energético-financiera para asfixiar y doblegar a los Estados y pueblos díscolos; e impulso de un nuevo irracionalismo que aúne contenidos neofascistas, racistas, fundamentalistas cristianos, patriarcales e hiper-consumistas y ultra-desarrollistas, todo ello reforzado por la creación de una fuerza sociopolítica de masas contrarrevolucionaria con presencia activa en todo el mundo. No tenemos espacio para exponer con el suficiente rigor la otra gran corriente burguesa que pugna por imponer su dirección.

La burguesía que incrementa sus beneficios explotando directa o indirectamente el pueblo trabajador vasco, sigue con extrema preocupación el deterioro de los Estados que la protegen y sin los cuales su cada vez más mermado poder autonómico-regional se hundiría en poco tiempo, a no ser que el reformismo fuera en su ayuda. De hecho, el reformismo abertzale lleva siendo un decidido sostén del orden capitalista en Euskal Herria desde al menos 2010, cuando aceptó *de facto* la legalidad impuesta y, cuando, con la ayuda del reformismo franco-español, paralizó la oleada de huelgas y luchas obreras y populares. Más de nueve años de ayuda al capital solo han servido para apuntalar a la burguesía y debilitar al proletariado, al pueblo trabajador.

Hay una crisis de dirección política en el imperialismo, pero en Euskal Herria existe una desvertebración total de la burguesía: no existe eso que antes se llamaba «burguesía nacional»... porque la alta burguesía de Euskal Herria es parte sustantiva del capitalismo franco-español y en Iparralde lo es la clase entera partidaria de París excepto sectores de la pequeña burguesía. La mediana y pequeña burguesía de Bizkaia y Gipuzkoa y en mucha menor medida en Araba son estrictamente autonomistas, y en Araba hay un sector españolista. En Nafarroa la mediana burguesía es españolista y regionalista, y sectores de la pequeña quieren llegar al autonomismo de Vascongadas, pero no más.

Las razones históricas por las que no existe un «proyecto nacional burgués» son fáciles de explicar y no vamos a exponerlas. La invertebración burguesa se va a incrementar porque hay dos grandes polos tractores -Madrid y París- que buscan sus intereses propios dentro de la Unión Europea. Un ejemplo muy ilustrativo lo tenemos en los crecientes obstáculos que impiden el plan del bloque de la mediana y pequeña burguesía de Bizkaia y Gipuzkoa y en menor medida de Araba de hacer de Vascongadas el nudo que conecte el eje del Atlántico de Galiza y el Mediterráneo de Catalunya, con el eje de África-París; nudo de alta velocidad de transporte, del superpuerto de Bilbao, de tecnología media-alta, de turismo selecto y de los servicios financieros y administrativos adecuados para ese proyecto, que en realidad no interesa ni a París ni a Madrid. Sectores reducidos de la burguesía de Iparralde

apoyan este proyecto pero saben que dependen de París, que mira al norte. En Iruñaldea y Gasteiz se mira a la gran industria de automóviles de la Unión Europea y al mercado agropecuario, así como a la venta internacional del vino.

Hay dos cosas esenciales que sí unen a las fracciones burguesas que explotan al pueblo trabajador. Las dos le conducen a redoblar su pleitesía a los Estados español y francés: Una y general, implorar con más ahínco sus protecciones para resistir la creciente competencia mundial, frente a la que estarían totalmente indefensos sin esas protecciones. La burguesía de Hegoalde es la que peor lo tiene en la competencia mundial por la mayor debilidad del Estado español, lo que obliga en especial a Geroa Bai en Nafarroa y al PNV en Vascongadas a hacer malabarismos verbales para ocultar sus genuflexiones con una verborrea foralista y autonomista. Pero el centralismo y el nacionalismo imperialista avanzan en París y sobre todo en Madrid porque es una de las bazas más eficaces para resistir la presión internacional. En ambos Estados, en neofascismo crece: en París, Macron loó al colaboracionista y contrarrevolucionario Pétain, y el genocida grito de ¡Reconquista! se vuelve a oír en el Estado español.

La otra cosa que une a las burguesías en Euskal Herria es implorar con más ahínco las ayudas represivas de los Estados para contener y derrotar la lucha nacional de clase. En Iparralde la aparición de los chalecos amarillos es un movimiento sísmico de profundas placas tectónicas que colisionan entre sí. En Hegoalde la lucha nacional de clase también está mostrando múltiples expresiones que reflejan la múltiples formas de explotación del capitalismo de inicios del siglo XXI: juventud y mujeres trabajadoras, pensionistas, servicios, maestros, obreras y obreros... La represión tiene que ser, por tanto, multiforme pero centralizada estratégicamente por los Estados opresores.

Exceptuando la alta burguesía, que frecuentemente ya no vive en el país pero que realmente detenta el poder decisivo por su simbiosis con los Estados, el sector que le sigue en poder delegado es el representado por el PNV mayormente afincado en Bizkaia y zonas de Gipuzkoa. El PNV es neoliberal, corrupto y clientelar, el grueso de su política económica gira alrededor del cemento y la construcción, de las «ayudas» a empresas privadas y de los convenios oscuros con empresas y servicios concertados, y a sus relaciones con la Iglesia, un aparato reaccionario que defiende la ocupación física y moral de Euskal Herria. Para el PNV son decisivos el control monopólico de EiTB, la Ertzaintza, la Hacienda Foral, el Grupo Mondragón, etc., y la alianza de clase con la industria político-cultural española. El PNV sabe que buena parte de su suerte depende del silencio cómplice del Estado que no investigará su corrupción mientras lo necesite para mantener el orden y la alienación.

Pues bien y para concluir esta primera entrega: el bloque sociopolítico que administra el poder delegado y tolerado por el Estado español -PNV, EH Bildu, PSOE y U-P- hace esfuerzos desesperados por crear una imagen falsa de la crisis sistémica que también pudre al capitalismo en Euskal Herria: la sinistra fotografía de sus cuatro portavoces oficiales celebrando en «fraternal amistad navideña» sus relaciones políticas, es un ejemplo de la histeria en la que está sumido el capital. Que la fotografía fuera realizada a instancias de una industria de la manipulación reaccionaria, como el Grupo Vocento, muestra su estrategia y la sumisión del reformismo a la prioridad del espectáculo alienante sobre y contra la lucha nacional de clase independentista y socialista.

Euskera

Gaur egungo testuinguruan independentziaren aldeko mugimendu sozialista berreskuratuko duen estrategia iraultzailea garatzeko, beharrezkoa da aspaldiko eta garai berrietakontraesan kapitalistek Euskal Herrian hartzen duten itxuraren inguruko gutxienekoakordio batera heltzea. Hau da lehen zatiaren helburua. Talka egiten duten klaseetan gertatu diren aldaketak ulertu behar dira ondoren, burgesiarengan, bere zentzu oinarrizkoan, eta proletariotza edo herri langilearengan gertatutakoak, zentzu orokorrean. Hau da bigarren atalaren helburua. Azkenik eztabaiderako puntu batzuk proposatuko dira. Atal bakoitzak lau orri baino gehiago ez izateko ahalegina egin da.

Lehena

Espainia eta Frantziako imperialismoa urduri eta beldurtuta dago. Batetik, Macrónen erregimenean nerbioak nagusitzen ari dira bere porrot ekonomikoagatik: %2ko hazkundea hitzeman zuen 2018an eta %1,9 2019an, baino lehen sei hilabetean izan duen ahultasun ekonomiko orokorra eta barneko ahultasunak bi urtetaroko %1,7ra egokitzen behartu du, Frantziako bankuak berak %1,6ra jaitsi duelarik 2018rako. Igoera horrek handia dirudi 2016ko %1,1arekin alderatuz, baino ez da ezer Txinaren %6,9ko hazkundearekin, ez eta mendebaldeko blokeo ekonomiko gogorra pairatu arren Frantziarekin alderatuz sekulako errekursoak dituen Errusiaren %1,5ko hazkundearekin alderatuz.

Geldialdi ekonomikoak defizit fiskala BPG-aren %2,6an mantentzea ekarri du, 2017ko kopuru bera, %2,3ra murriztea espero zen arren. Dagoeneko ezinezko da. Nazioarteko Moneta Funtsaren (NMF) arabera Frantziako kapitalismoak 2017 eta 2022aren artean munduko hierarkian zapigarren postua mantentzen du, baino epe ertainera jaisten joateko joera dauka bestelako herrialde batzuk gorantz ari direlako indar handiz. 2008tik langile familia bakoitzak soldatan izan duen bataz besteko galera 440 eurokoa da, eta horrek, gizarte mailan egon diren murriketa gogorrekin batera herriaren haserrea ekarri du nabarmen. Adierazgarri bat, txaleko horien mugimendua da, baina ez da bakarra. Errepresioa areagotu eta 100 euroko limosna lotsagarria emateak herri haserrea geldiarazi du. 89.000 polizia daude kapitalismoaren defentsaren lehen lerroan, baina bigarren lerroan unitate militarrak daude... gaur arte 5339 lagun atxilotu dituzte, mobilizazioek iraun duten bi hilabete hauetan.

Espaniako kapitalismoa, bestalde, ikaratuta dago 2010eko mailetara erori delako Ibex 35a, etorkizunean burgesiak duen konfiantza faltaren erakusle nabaria besteak beste. Izan ere, NMF-aren arabera Espaniako kapitalismoa 2009an zortzigarren postura jaitsi zen, hamalaugarrenera 2017an, eta hamabosgarrenera jaitsiko da 2021erako, edo Expansion aldizkariaren arabera hamaseigarrenera. Hau gutxi balitz, mundu mailako moteltze honek turismoari eragiten dio, defizit erraldoia murritztea zaitzen du, esportazioak gutxitu eta importazioak handitzen ditu, petrolioaren prezioa igotzeko beldurrez beti...

Egiturazko arazo hauei produktibitate txikia gehitu behar zaie, denen artean erabakiorrena: 2013an sortu ziren lanpostuen %78k bataz bestekoa baino produktibitate txikiagoa dute eta 2016ean, erkatutako azken urtea, Espanian pertsonako produktibitatea 67.000koa zen,

Euroguneko 75.000aren aldean. Estatu mailako produktibitatea %0,5 hazi zen 2015ean eta 2016ean %0,6, Europan hurrenez hurren %1,7 eta %1,3 hazi zen bitartean. Espainiako produktibitateak 32 ekonomia indartsuenen zerrendan hogeita bederatzigarren lekua betetzen du, eta Europatik kampoko herrialdeen igoerarekin beherazko joera hartu du nabarmen. Estatuaren oinarrizko egituraren daude atzerapen honen arrazoi historikoak: Langileriaren %42k ez dauka goi mailako ikasketarik, eta Eurogunean %29,5ek bakarrik. Langabeziaren murrizketa kontratu berrien prekarietatetik etorri da, are gehiago, krisiarekin 3,6 miloi lanpostu galdu ziren eta geroztik 2,5 miloi bakarrik sortu dira, lanorduen %60 bakarrik berreskuratu delarik.

Bai, Spainiar eta Frantziar imperialismoak urduri eta beldurtuta daude. Imperialismo guztia erotzear dago mundu mailako mozkinen tasak jaisteko joera izaten jarraitzen duelako, 2007tik darabilten gehiegizko esplotazio eta lapurreta ahalegin biderkatuek ez dutelako garai baikor luze bat zabaltzerik lortzen, eta itxura guztien arabera krisia sakonduko delako 2019an. Fikziozko kapitalak eta kapital espekulatzaleak, "itzalpeko bankak" eta abar, minbizia bezala hedatzen ari direlako, gaizki izendatutako "kanpo" gastuak, naturaren suntsiketa kapitalista ekartzen dutenak, geldiezinak direlako. Lehengaiak eta energia xahutzen direlako. Elikagaiak garestitu egiten dira, neurriz gabe handitzen diren kostu tekniko zientifikoengatik. Mundu mailako zorra neurririk gabe hazten ari delako katastrofe baten atarian kokatu arte. Langile borrokak eta herri borrokak handitzen ari direlako, mundu mailan mozkinei eusteko izugarri handitu diren pobretze eta prekarietateak erresistentzia horiek elikatzen dituelako. Birjaiotzen ari den Faxismoak Estatu batzueta oraindik baliagarri zaien gezur parlamentario-demokratikoa kontroletik atera dezakelako. Imperialismo barruko kontraesanak eta lehiak pizten direlako, armagintza lasterketaren ondorioz imajina ezinezko gastuak eraginez. Alegia, laburbilduz Marxeek Kapitala bere liburuan agertu eta azaldu zuen kapitalismoaren metaketa lege orokorra betetzen ari delako.

Galera ekonomiko, energetiko eta sozio ekologikoaren fase hau, lau puntu kezkagarri hauetan laburbildu dezakegu.

Bat, imperialismoaren zuzendaritza politikoaren krisia; Kapitalaren gobernu erabakiorrak -Estatu batuak, Erresuma Batua, Alemania, Frantzia, Italia, Japonia, Belgika... tartekoak eta ahulagoak ez aipatzeagatik- Zuzendaritza politiko eta estrategikorako arazo larriekin dabilta. Bi, epe ertain eta luzean Txina herrikoiak eta Errusiak gidatzen duten batasun euro-asiarra, kapitalismoaren oinarriak bost ataletan suntsitzea eragiten ari da: batasun politiko handiagoa, lanaren produktibitatea eta finantzen kontrola, tekno-zientzia zibil eta militarra, energia eta biztanleria errekursoetan nagusitasuna, imperialismoa bezain basatia ez den nazioarteko politika bat, Mendebaldetik urrunten ari diren bestelako aliatuak ekartzen ari dena. Hiru, Mundu maila eta eremu bakoitzaren kontrolik eza, planetan zehar ditugun gerra ekonomikoekin batera. Eta lau, Estatu batuek zuzendu ta gainerako herrialde handiek babestutako armamentismo imperialista, gizarte eta kultural mailako berramatzea, arrazakeria eta neofaxismoak lagunduta, eraso berrietarako baldintzak sortzen: Txina herrikoia, Errusia, Iran, Venezuela, Kuba, Bolivia, Siria, Sudan, Korea, Yemen...

Trumpen gobernuak ordezkatzen duen munduko kapitalaren korronte handiak bere norabide imperialista ezarri nahi du gainerako kapitala diziplinara ekarriz. Lau metodo handi

erabiltzen ditu: Estatu batuen nagusigo orokorra berreskuratu; berauk sortutako kaos mundialean nagusigo politiko eta militarra indartu; Estatu eta herrialde bihurriak ito eta menderatzeko finantza eta energia nagusigoa ezarri; eta mezu neofaxista, arrazista, kristau fundamentalista, patriarkal, hiperkontsumista eta ultradesarroilistak dituen irrazionalismo berri baten sorrera bultzatzea, mundu osoan zabaltzen ari den masa indar soziopolitiko kontrairaultzaile batek indartua. Ez dugu nahikoa lekurik behar bezala azaltzeko bere zuzendaritza inposatu nahi duen beste korronte burges handiaren ezaugarriak.

Zuzenean edo zeharka euskal herri langilea zapalduz bere mozkinak handitzen dituen burgesiak, kezkaz begiratzen dio bera babesten duten Estatuen hondatze prozesuari, horiek gabe gero eta txikiagoa duen botere autonomiko-erregionala denbora gutxian hondoratuko litzatekelako, erreformismoaren laguntzarik ez badu behintzat. Izatez, erreformismo abertzalea 2010etik Euskal Herrian ordena kapitalista mantentzeko euskarri nagusia izan da, inposaturiko legedia onartu eta spanishiar eta frantziar erreformismoarekin batera, grebak, langile borrokak eta borroka herritarra gelditzeari ekin zionetik. Burgesia sendotu eta proletariotza, euskal herri langilea, ahultzea izan dira kapitalari bederatzi urte baino gehiagoz lagundu izanaren emaitza bakarra

Imperialismoa bere zuzendaritza politiko faltagatik krisian dago baina Euskal herrian burgesiaren erabateko orno gabetze bat gertatu da: Ez da existitzen lehen aipatzen zen “burgesia nazional” hori... Euskal Herriko goi burgesia kapitalismo frantses eta spanishiarrean funtsezkoak dira, eta Iparraldean klase soziala osorik da Parisen aldekoa, burgesia txikiaren sektore bakan batzuk kenduta. Gipuzkoa eta Bizkaian, eta Araban maila txikiagoan, erdi eta behe mailako burgesak autonomistak dira, eta Araban spanisholista den sektore bat dago. Nafarroan erdi mailako burgesia spanisholista eta erregionalista da eta behe mailako burgesiak Euskal autonomi erkidegoaren autonomi maila amesten du gehienez ere.

“Nazio proiektu burgesa” hemen ez egotearen arrazoia errazak dira azaltzen eta ez ditugu aipatuko. Burgesiaren orno gabetza, erakartzen duten bi poloek – Paris eta Madril-Europar batasunean dituzten interes propioen eraginez, handitzen ari da etengabe. Horren adibide nahiko adierazgarri, Gipuzkoa, Bizkaia eta neurri txikiagoan Arabar burges txiki eta ertainek dituzten proiektuek oztopoak baino ez dituzte aurkitu Erkidegoa Galiziako ardatz atlantikoarekin eta Kataluniako ardatz mediterraneoarekin eta Madril eta Paris ardatzarekin lotuko duten Abiadura handiko korapiloa, eta Bilboko super portua bezalako planetan. Erdi goi-mailako teknologia eta goi mailako turismoa biltzen dituzte, eta finantza baliabide eta baliabide administratibo egokiak behar dituzte horretarako, baino Madril eta Parisek ez dute horretan interesik. Iparraldeko burgesiaren sektore txiki batek begi onez ikusten du proiektua, baino badakite Parisen menpe daudela honekin aurrera egiteko, eta Paris iparraldera begira dago. Iruñea aldean eta Gasteizen aldiz Europar Batasuneko automobilgintzara begira daude, lehen sektorearen merkatuan eta ardoaren nazioarteko merkatuan.

Badira herri langilea zapaltzen duten burges sektore ezberdinak batzen dituzten bi gauza. Biek bilatzen dituzte Estatu spanishiar eta Frantsesari ohore egitea. Bata, eta orokorra, mundu mailako konpetentziari aurre egiteko haien babesera erregutzea, estatu horien laguntzarik ezean erabat babesgabe egongo liratekelako. Hegoaldeko burgesiak zailago du

mundu mailan lehiatzea estatu espanyiarraren ahuldadeagatik, eta Geroa Bai Nafarroan eta EAJ EAE-n, hitz-jario formalista eta autonomista batekin malabarismoak eginez estali behar izaten dute etengabe gauzatzen duten belaunikatzea. Baino Parisen, eta batez ere Madrilen zentralismoa eta nazionalismo imperialista aurreraka doaz, nazioarteko presioaren aurrean eusteko aukera eraginkorrenetako bat direlako. Bi Estatuotan ari da neofaxismoa hazten: Parisen, Macronek Pétain Anti iraultzaile eta kolaboracionista goratu zuen, eta Espanian “Birkonkistaren” aldeko oihu genozida entzuten ari gara berriz.

Euskal Herriko burgesiak batzen dituen beste gauza nazio mailako klase borroka garaitzeko gero eta gogotsuago eskatzen duten lagunza errepresiboa da. Iparraldean txaleko horien agerpena euren artean talka egiten duten plaka tektonikoen mugimendu sismikoa izan da. Hegoaldean nazio mailako klase borroka adierazpide berriak erakusten ari da, XXI. Mendeko kapitalismoaren zapaltzeko modu anitzen adierazgarri: Gazteria, emakume langileak, pentszionistak, zerbitzuak, irakasleak, langileak... Errepresioak beraz aurpegi asko izan behar ditu, baino estrategikoki, Estatu zapaltzaileetan zentralizatua izan behar du.

Goi mailako burgesia normalki ez da herrialdean bizi, baino estatuekin duen batasunagatik botere erabaki-orra dauka. Bizkaian, eta Gipuzkoako zenbait gunetan, finkatutako EAJ da bere botere ordezkaritzaren erantzulea. EAJ neoliberala da, ustela eta eroserraza, bere politika ekonomikoa porlana eta eraikuntzan oinarritzen da, enpresa pribatuei emandako laguntzetan, kontzertatutako enpresa eta zerbitzuekin dituen hitzarmen ilunetan, eta Euskal Herriaren okupazio fiskal eta morala defendatzen duen Elizarekiko dituen harremanetan. EAJ-arentzat EITB, Ertzaintza, Foru Ogasunak, Mondragon Taldea eta abarren aldebakarreko kontrola ezinbestekoak dira. EAJ-k badaki Estatuaren isiltasunaren menpe dagoela, honek ez baitu bere ustelkeria ikertuko, ordena eta alienatza mantentzeko beharrezko duen bitartean.

Lehen atal honekin bukatzeko, Estatu espanyolaren oniritziz delegatutako boterea administratzen duen bloke soziopolitikoak - EAJ, EH Bildu, PSOE eta U-P - berebiziko ahaleginak egiten ditu Euskal Herrian kapitalismoa usteltzen ari den krisi sistemikoaren irudi oker bat emateko: Kapitalismoa erasaten duen histeriaren adibide beldurgarria da alderdi hauetako lau ordezkari ofizialek, gabon espirituz ziprirtinduta, beren harreman politikoak ospatzeko egindako familia argazkia. Argazkia Vocento bezalako manipulazio atzerakoaren industria baten kontura egin izanak, argi erakusten du erreformismoaren estrategia eta men egitea zein den, ikuskizun alienatzaileari lehentasuna ematea nazio mailako klase borroka independentista eta sozialistaren gainetik.

Aurrerantz

<https://eh.lahaine.org/cast-eusk-ikuspegia-i-perspectivas>